



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Emakumearen mututasun soziala:
feminitatearen eta
maskulinitatearen estereotipoak**

*Antzinako Grezian eta Paula
Quintano-Martínez*

96-102 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.01.13>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



UDALBILTZA



Emakumearen mututasun soziala: feminitatearen eta maskulinitatearen estereotipoak Antzinako Grezian

Quintano-Martínez, Paula

Universitat Jaume I

al321700@uji.es

Laburpena

Gaur egun oraindik bizirik dauden rol sozialak eta genero estereotipo nagusiak orduko Antzinako Grezian aurki zitezkeen. Komunikazio honetan Greziar pentsamendu sinbolikoa genero ikuspuntutik analizatuko dugu. Bai emakumezkoen bai gizonezkoen erantzukizun sozialak eta genero ezaugarri idealak argitu nahi ditugu, garai horretan greziar gizartean sexu-diferentzia nola eraiki zen hobeto ulertzeko helburuarekin.

Hitz gakoak: Antzinako Grezia, emakumezkoak, gizonezkoak, genero estereotipoak, rol sozialak

Abstract

Most of the main gender stereotypes that nowadays are still alive can already be discovered in Ancient Greece society. In this paper we will analyze Greek symbolic though using gender-perspective. We want to unveil the social roles and the ideal characteristics associated to women and men, in order to understand how sex-difference was built by Greek society during that period.

Keywords: Ancient Greece, women, men, gender stereotypes, social roles

1. Sarrera eta motibazioa

Kultura klasikoek aztarna sakona utzi dute gure mendebaldeko gizarteetan eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko erlazioetan ere eragin handia izan dute.

Bestaldetik, gaur egungo gizartean oraindik bizirik dauden rol sozialak eta genero estereotipo nagusiak orduko Antzinako Grezian aurki zitezkeen. Komunikazio honetan Greziar pentsamendu sinbolikoa genero ikuspuntutik analizatuko dugu. Bai emakumezkoen bai gizonezkoen erantzukizun sozialak eta genero ezaugarri idealak argitu nahi ditugu, garai horretan greziar gizartean sexu-diferentzia nola eraiki zen hobeto ulertzeko helburuarekin.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Ikerketa hau genero historia barruan kokatzen da bereziki. Generoa harreman sozialen eta botere-harremanen osagarri esanguratsua da (Scott, 1990: 44) eta historia ikertzeko ezinbesteko faktorea dela adierazi nahi dugu.

Sexu bakoitzari ematen zaizkion osagai kultural eta sozialak genero kontzeptuaren bidez adierazten dira. Baina emakumezko eta gizonezko kontzeptuak ez dira iraunkorrak izan, ezta bakarrak ere (Rose, 2012: 85). Gizarte ezberdinetan eta denboraren poderioz aldaketak bizi dira. Gainera, inoiz ez da emakume eta gizon izateko modu bakarra egon, emakumezkoak eta gizonezkoak pluralak izan direlako, bai iraganean bai gaur egun. Horregatik onartzen dugu genero-arekiko guztiz erlazionatuta dauden beste faktoreak nagusitzen direla: klasea, egoera sozio-ekonomikoa, estatusa, adina, esklabotza edo askatasuna. Eragile horiek batera osatuko dute gure ikerketa historikoa, genero perspektiba aplikatuz.

2.1 Helburuak

Lan honek Antzinako Grezian emakumezko eta gizonezko izatearen esanahi nagusiak analizatzea du helburu. Gizarte grekoan ezarri ziren ezaugarri femenino eta maskulino idealak aztertzen saiatuko gara, eta, horrekin batera, garai horretan garatu ziren genero estereotipo esanguratsua azaleratuko ditugu.

Bestaldetik, sexuen arteko erantzukizun banaketa eta emakumezko eta gizonezko estereotipo batzuen antzinatasuna azpimarratu nahi dugu.

2.2 Iturriak

Ikerketa egiteko oinarrizko iturriak idatzizko lanak izan dira: lan literarioak, filosofikoak eta testu historikoak. Hala ere, azterketa sakona egiteko beste aztarnekin ere lan egin dugu, batez ere iturri plastiko eta arkeologikoekin. Iturriak analizatzeko bi irizpide kontuan izan ditugu: alde batetik, iturrien egiletasuna eta intentzioa; bestaldetik, informazioaren protagonistak. Gizonezkoek idatzi eta sortu zituzten garai horretako iturri gehienek. Gizonezkoek kontatzen zituzten historiak, haien ikuspuntuak eta iritziak emanaz. Emakumezkoen ikuspuntu propioa falta da, eta horrek ondorio nabarmenak ditu. Beraz, errealitatea genero-eragilearen iragazkitik pasatu behar dela kontuan hartzen dugu. Egia esan, iturri gehienek ez zuten errealitatea guztiz objektiboki kontatzen, eta eginkizun ezberdinak igarri zitezkeen. Sarritan audientzia konbentzitzeko ahalegina nabaria zen: ondo ikusita zegoena edo zilegi zena azaltzen zuten, eta, aldi berean, ez-legitimotzat hartzen zena gaitzetsi. Asmo pedagogikoa eta moralizatzailea nagusia zen gehienetan.

Gainera, iturriek ematen duten informazioa ez da gizarte osoari erraz egokitzen. Askotan hiritar aberatsenen eta maila altuko klase sozialen berri ematen zuten. Aitzitik, aukera gutxiko lagunei eta esklabotzan bizi zirenei buruz informazio falta igartzen da. Horregatik, erabateko analisisa egiteko egoera sozio-ekonomikoa eta estatus faktorea derrigorrez izan behar dira kontuan.

3. Emakumezkoak greziar gizarte eta mentalitatean

Antzinako Greziar mentalitatean munduko ikuspegi duala ezarri zen, aurkako bi eremutan banatuta: eremu horiek femenino eta maskulino kontzeptuekin uztartu ziren eta hedaduraz emakumezko eta gizonezkoekin lotu ziren¹. Eremu maskulinoan ondorengo ideiak erlazionatu zituzten: kanpoko, publikoa, hiria (*polis*), aktibitatea, indarra, guda, berotasuna, eskuma, kultura, neurritasuna, perfekzioa. Eta kontzeptu horien aurrean eremu femeninoarekin uztartzen zirenak: barrukoa, pribatua, etxea (*oikos*), pasibotasuna, ahaltasuna, etzalekua, hotza, ezkerria, natura, kontrolik eza eta perfekziorik eza.

Bi eremu horien erlazioa ez zen simetrikoa, guztiz asimetrikoa baizik. Gizonezkoa, modelo bihurtuta, gizakien neurria zen. Berarekin konparatuz emakumezkoa ezegokia eta inperfektua zen, emakumezko izaera gabezia zela ulertzen zen, hura bera zen akatsa (Sissa, 1991: 94).

Greziar gizartean bikaintasunaren bilaketa goraiatzen zuten bi bertute pertsonal eta komunitarioen bidez: norberaren kontrola (*sofrosine*) eta gizontasuna (*andreía*). Baina biak gizonezkoekin zeuden lotuta. Logika, moderazio eta arrazionaltasun maskulinoen aurrean sentimendu, neurrigabekeri eta irrazionaltasun femeninoa (*hybris*) islatzen ziren. Beraz emakumezkoen bertutea ziurtatzeko apaltasuna eta lotsa ziren beharrezkoak. Emakumezkoek inor ohartu gabe eta zuhurtziaz jokatu behar zuten: anonimoak izanez bertutea bermatzen zuten, bai norberarena bai familia osoarena. Horregatik ez zituzten emakumeen izen-deiturak zuzen aipatzen eta gizonengan mendekotasun formulak erabili ohi ziren: gizon konkretu baten emaztea, alaba edo ama zirela baino ez zen aipatzen. (Loraux, 1996: 14)

Obedientzia, kastitatea, fidelitasuna, umiltasuna eta isiltasuna ziren emakumezkoen *sofrosine* kontzeptuaren esanahiak. Baina horien aurrean estereotipo negatiboak ere zabaldua zeuden: akats nagusien artean amorrua, oihuka ibiltzeko joera, jakin-nahikeria eta koldarkeria aurpegiatzen zitzaizkien. Gehiegizko sexualitatea sentitzen zutela uste zen, eta horregatik haien gorputzak eta ekintzak kontrolatuak izan behar ziren. Emakumezkoak barbaroekin, atzerrikoekin eta animaliekin alderatzen ziren sarritan. “Basakeri egoera natural” batean bizi

¹ Atal honetarako greziar kulturari buruzko lan orokorrak erabili dira, baita emakumezkoen historia berreskuratzen dutenak ere: Vernant, 1992; Duby eta Perrot, 1991; Cantarella, 1991; García Gual, 1992; Madrid, 1999; Molas Font et al., 2006.

zirela uste zen: alde batetik emakumezkoak naturarekin konektatuta zeuden, bestaldetik gizonezkoak kulturarekin lotzen ziren. Printzipio femeninoa kaotikoa eta basatia zen. Aitzitik, printzipio maskulinoak ordena eta zibilizazioa suposatzen zituen.

Nahiz eta funtzio biologikoagatik erabateko puruak ez izan, mundu sakratuarekin erlazio misteriozua zuten: jaiotza eta heriotza momentuak (printzipio positiboa eta negatiboa hurrenez hurren), fenomeno kontrolaezinak ziren, eta bietan hartzen zuten parte emakumeek (Bruit Zaitman, 1991: 410). Gainera biak ziren aktibitate femenino publiko bakarrak. Emakumezkoen eta printzipio femeninoaren antibalantzia azpimarratzen zuten: beharrezkoa, baina aldi berean arazoa, ez zuten ezer onik ekartzen (Zaragoza Gras, 2006: 10).

3.1 Emakumezkoen estatusa eta mendekotasun politiko eta soziala

Antzinako Grezian emakumezkoen mendekotasun legalaz eta politikoaz adostasuna da nagusia, baina estatus sozialaz berba egiterakoan ez dago erantzun bakarra (Pomeroy, 1987: 74). Emakumezkoen errealitatea testuinguruaren arabera aldatu zen, mundu grekoa osatzen zuten hiri-estatu burujabeek haien antolaketa eta hiritar-komunitatea era ezberdinetan pentsatu zutelako². Esparta, Gortina eta Atenaseko lege-corpusa aztertuz emakumezkoen egoera oso desberdinak aurkitzen dira. Kreta, Gortina eta Espartan emakumezkoek askoz autonomia handiagoa izan zuten Atenasen baino (Pomeroy, 2002, Fragkaki, 2016). Diferentzia handienetariko bat jabetza eskubidea izan zen: bai Espartan bai Gortinan emakumezkoek ondasunak jabetzan izateko eskubidea izan zuten, baina Atenasen ez zuten inoiz lortu. Hiri honetan, bereziki, emakumezkoak “betiko adingabeak” izan ziren (Mosse, 1995): ekonomikoki, juridikoki eta politikoki gizon baten mende egoten behartuta, tutore legal baten menpean (*kyrios*) ematen zuten bizitza. Hala ere, emakumezkoen egoera ez zen beti berdina izan. Mendeetan zehar antolaketa politiko eta sozialean eman ziren aldaketek eragin handia izan zuten emakumezkoen estatusean.

Aro arkaikoan (K. a. VIII. m.-K. a. 500) elite barruko emakumeek estatus altua izan zuten. Garai horretan aberastasunak eta elite mailan egoteak estratifikazio soziala antolatzen zuten, eta aintzat hartzen zen emakumezkoek boterea transmititzeko zuten eginkizuna.

Arlo klasikoan (K. a. 500-K. a. 338) emakumezkoen balorazio sozialak behera egin zuen. Momentu horietan gizarte demokratikoa gizonezko hiritar inguruan antolatzen hasi zen. Hiritarrak haien artean berdinak ziren, eta, aldi berean, beste guztiak baino nagusiagoak: emakumezkoek, atzeritarrek eta esklaboek batera besteen taldea osatzen zuten, gizonezko hiritarren menpe (Pomeroy, 1987: 96). Sistema demokratikoa gailurrean zegoela emakumezkoen marjinazio soziala eta politikoa zabaldu zen. Ideologia zorrotzaren eraginagatik emakumezkoen eskubideak nahitaez gizonezkoen eskuetan utzi eta betiko adingabe bihurtu ziren.

Aro helenistikoan (K. a. 338- K. a. 168) emakumezkoek aukera berriak lortu zituzten. Haien egoera hobetu, eskubide berriak lortu eta pixkanaka askatasuna handiagoa irabazi zuten, batez ere klase sozial altuenetan. Aktibitate ekonomikoetan parte hartzeko gaitasun legala lortu zuten, eta zenbait zonaldetan tutore legalaren irudiaren ohitura galtzen hasi zen (Pomeroy, 1987: 147). Elite barruko emakumezko batzuk zeharbidez politikan sartu, eta lehenengoz erretratu artistikoetan emakumezkoak azaldu ziren. Hala ere, aldaketa hauek helenizatu berriak ziren aldeetan sakonagoak izan ziren, eta, ostera, Atenasen zenbait momentutan prozesu kontrakoa bizi izan zuten, emakumezkoen askatasuna murriztuz: hiri honetan oso esanguratsua izan daitezke portaera femeninoa kontrolatzeko ezarri zituzten zentsoreak³ (*gynaikomoi*) (Calero, 2012). Baina orokorrean arlo klasikoaren ideologiak inposatzen zuen emakumezkoen kontrol zorrotza apurtzen hasi zela esan daiteke.

3.2 Rol politiko eta sozialak: hiritartasuna eta erantzukizunen banaketa

² Azpi-atal honeratako oinarritzat izan diren obrak: Pomeroy, 1987, 2002; Mosse, 1995; Pomeroy et al., 2001; Marín Torres, 2012.

³ Emakumezkoek duintasun eta lotsa arauak ondo betetzen zituzten zelatatzen zuten zentsore horiek, baita emakumeen portaera ere. Demetrio de Falerok ezarritako legislazioan garatu zen (K. a. 317-307).

Greziar mentalitatean sexu araberako erantzukizunen banaketa garbia ezarri zen⁴. Atenasen gizonezkoek komunitatearen zuzendaritza politikoa, ekonomikoa eta soziala izan zuten. Bestaldetik, aberriaren babesaren ardura zuten. Komunitate honetan berdintasuneko premisak (*isonomia*) hiritar guztiei baldintzen berdintasuna ziurtatzen zien arren, arlo publikoan parte hartzeko eskubidea gizonezko hiritarrena baino ez zen (Vernant, 1992: 13). Beraz, politika eta guda ziren aktibitate maskulinoak. Emakumezko hiritarrak izate onartzea nahiko zaila izaten da. Nahiz eta hiritarren familiakoak izan eta hiritartasuna transmititu, emakumezkoak hiriko aktibitate nagusietatik kanpo egon ziren: gai publikoetatik baztertuta, eta botoa emateko eskubiderik gabe. Erantzukizunen banaketak espazioen zatiketa ekarri zuen: hiriko espazioa, hau da, kanpoaldeko mundua, gizonezkoentzat definituta zegoen, eta etxeko espazioa, barruko mundua, emakumezkoentzat. Horregatik emakumezkoek familiaz eta etxeaz (*oikos*⁵) arduratu behar zuten. Emakumezkoak espazio publikoetatik baztertuta bizi izan zirela uste ohi zen, etxeetan zokoratuta ea mugitu ezinik. Hala ere, espazioen polarizazioa ideala zela ez da ahaztu behar.

Nahiz eta erabat beharrezkoa izan, etxeko munduarekin zer ikusia zuten guztia mespretxuz ikusten zen. Pribatutasunarekin lotuta, emakumezkoen estatusa urritu egin zen arlo publikoaz urruntzen zirelarik. Gizarte mailan klan leinutik familia nuklearrera pasatu zenean aldaketak eragin ekonomiko, politiko eta sozialak ekarri zituen. Ezkontza sistema zabaldu zen, emakumeak kontrolatzeko ezinbesteko tresna bihurtuz.

Espartan, erregimenaren izaera totalitarioagatik, gizonezkoen ardura nagusia militarra izan zen. Bizitza publikoan parte izan arren, gobernu kontuak bi buruzagien (*basilei*) eskuetan uzten ziren. Gizon libreak borrokaren balioan hezita zeuden, eta emakumeak soldadu berriak erditzeko premian. Espartako mentalitatean gudarako adorea eta amatasuna elkartu ziren, horregatik emakumeen heriotza umeak izatean eta gizonezkoen heriotza gudan parte hartzean nolabait berdindu ziren.

Egia esateko, Grezia osoan emakumezkoen erantzukizun handiena amatasuna izan zen. Nahitaezko ardura eta egoera ideala, ama izatea funtsezkoa zen estatus femeninoan. Mutil bat *demo* erregistroan⁶ izena eman ostean gizon bihurtzen zen, eta neska baten kasuan ezkontza ostean bihurtzen zen emakume (Loroux, 2004: 201). Ezkontzak emakumezkoen basakeri naturala mantsotzen zuen, eta emakumeak hezteko erabiltzen zen. Hiritar legitimoak eta soldadu leialak izateko bide arautua zen ezkontza, emakumezkoen “hiriko lana” (Iriarte, 2002: 133). Ezkontzak eta amatasunak emakumezkoen errealizazioa suposatzen zuten, erreprodukzio biologikoa izateaz gain balio publikoa eta onarpen soziala ere ekartzen zutelako.

Nahiz eta hiritartasun egoera legitimatu eta transmititu emakumezkoek ez zuten hiritartasun osoa inoiz lortu. Ezin zuten justizian edota politikoan parte hartu⁷. Baina emakumeak ez zeuden bizitza komunitariotik guztiz kanpo. Gizarteratzeko bide propioak erabili zituzten eta horien artean erlijioa nagusitu zen. Hiriko aktibitate erritualak eta erlijiosoak haien ardurapean egon ziren, eta, hain zuzen ere, horregatik aipatzen da emakumezkoak nolabait hiritarren rola disfrutatu zutela (Iriarte, 2002: 16).

3.3 Emakumeen mututasun soziala

Mundu grekoan jakintzak eta hitza erabiltzeko gaitasunak definitu zuten gizonezkoaren izaera⁸. Gizonek gai komunitarioetan parte hartzeko idatzizko edo ahozko diskurtsoa erabiltzen zuten, baina, aitzitik, emakumezkoek mundu hauetatik kanpo geratu ziren. Isiltasunak eta ezjakintasunak definitu zituzten emakumezkoak, mututasun soziala moduko egoera baten

⁴ Ezinbesteko lanak: Pomeroy, 1987; Iriarte, 1990, 2002; Rodríguez Adrados, 1993; Loroux, 2004.

⁵ Hitzak esanahi konplexua du, baina definizioa, María Dolores Miron ikerlariaren hitzetan (2004, 62-64), “produkzio eta erreprodukzio unitatea” zen.

⁶ Hiriaren unitate administratiboa eta demokratikoa zen. *Demo* erregistroak gizonezkoen hiritartasuna baieztatzen zuen.

⁷ Aristotelesek idatzi zuen *Politikan* justizia eta politika aktibitateen bidez definitu zen hiritar kontzeptua.

⁸ Atal honetarako oinarritzko bibliografia: Vernant, 1992, 1991; Molas Font et al. 2006; James eta Dillon, 2015

murgilduz. Horrekin batera zuhurtasuna, diskrezioa eta obedientzia gorde behar zuten. Aristotelesen hitzetan⁹ isiltasuna zen emakumezkoen apaingarri nagusia.

Demokrazia analizatzeko, arrazoitzeko eta argudiatzeko gaitasunetan zetzan, baina Grezian pertsona guztiek ez zituzten eskubide horiek izan. Hitza eta ahots publikoa gizonezko hiritarren eskubide eskusiboa izan ziren, eta besteek ez zuten inoiz pribilegio hori lortu.

Gainera emakumezko eta gizonezkoen arteko harremanak formula baten bidez laburtzen ziren: emakumeek ez zuten besteen aurrean berba egin behar, ezta besteen ahoetan ibili behar, ez onerako ez txarrerako¹⁰. Horrek adierazteko ezgaitasuna eta entzunda izateko eskubide eza ekartzen zien. Isiltasun femeninoa bertute eta mendekotasunaren proba zela uste zen. Hala ere, kontzeptu ideal horrek ez zuen eguneroko eta benetako mututasuna suposatzen.

Emakumezkoek hitz egiten zuten, baina haien ahotsak eta gizonezkoenak oso bestelakoak zirela uste zen¹¹. Diskurtso maskulinoa *logos* edota arrazoibideekin lotuta zegoen bitartean, emakumezkoena anbiguetatearekin lotzen zen. Hitz femeninoak, irrazional eta ilogikotzat hartuta, zentzu negatiboa zuen: kontrolaezina eta sinesgaitza zela uste zen. Pandora pertsonaia mitiko femeninoarekin alderatuz¹² emakumezko guztiek gezurraren arriskua adierazten zuten. Greziar mentalitatean emakumezkoen dialektoa edo “feminolektoa” existitzen zela zabaldu zen (Quintillá, 2005: 45). Eta horrekin batera estereotipo diskurtsiboak hedatu ziren: azkarregi, arrazoitu gabe eta ezjakintasunez hitz egiten zuten; kuxkuxeroak ziren, diskrezio eta lotsarik gabeko diskurtsoa erabiltzen zuten eta sekretuak gordetzeko ezgaiak ziren.

4. Ondorioak

Komunikazio honen bidez Antzinako Grezian zabaldu ziren rol sozialen eta genero estereotipoen errebasoa egin nahi genuen. Ikerketa tradizioaletan dikotomia gogorraz hitz egin ohi zen. Arlo pribatua eta publikoa bananduta zeudela azpimarratzen zen, bai erantzukizun eremuan bai espazio fisikoen kontuetan, Atenaseko kasuan batez ere. Hala ere, azken hamarkadetan gizarte grekoa ulertzeko ikuspuntu tradizionala berrikusi da (Davidson, 2011; Nevett, 2011; Henry eta James, 2012). Gaur egungo genero ikerketa historikoek azpimarratzen dute muturreko bikoteen panoramak (*oikos/polis*, pribatua/publikoa, femeninoa/maskulinoa, natura/kultura) ez duela bizitza sozialaren konplexutasuna ondo islatzen. Idatzizko iturriak aztarna arkeologikoekin konparatzen badira, Greziar bizitzan egin arlo publiko eta pribatuen arteko banaketa uler daiteke ez zela erabatekoa, ezta eremu pertsonal, zibil eta sakratuen banaketa ere (Trumper, 2015: 291). Egia esateko, arlo ezberdinen artean familia izan zen giltzarria¹³.

Hala ere, ideologikoki gizonezkoa eta eremu maskulinoa goraiatzen ziren. Aristotelesen hitzek garbi azaltzen dute gizarte antolatzen zuten asimetriak: “Izadiagatik gizonezkoa nagusia da eta emakumea mendekoa. Batek menderatzen du, bestea menpean dago” (*Política* I, 5). Emakumezkoak hitzarekin lotuta zeuden sozializazio forma guztietatik baztertuta egon ziren: plazatik (*agora*), justizia tribunaletik eta konfrontazio dialektikoetatik ere. Hain zuzen ere, Antzin Aroko garaian emakumezkoen hitzaren gabezia izan daiteke elementu esanguratsua (Martínez López, 1995: 19). Emakume agurgarrien ahotsak ez zituen zilegitasun sozialik, ezta baliorik ere.

⁹ Aristoteles. *Política*. 1260A11.

¹⁰ Periklesek bota zuen esaera famatua hau eta Tucídidesek hartu eta idatzita utzi zuen *Historia de la Guerra del Peloponeso* izeneko obran (II, 45, 2), K. a. V. m.

¹¹ Genero ikuspuntutik diskurtsoetan eta ahotsetan sakontzeko: McClure, 1999; Lardonis eta McClure, 2001.

¹² Pandora pertsonaia mitikoa Hesiodok idatzitako *Lanak eta egunak* eta *Teogonía* obretan azaltzen da. Lehenengo emakumezkoa edo hobeto esanda emakumezkoen jatorria izan zela esan ohi da.

¹³ Familiarekin lotuta arlo publikoan parte hartzeko aukerak sor zitezkeen: senideei egindako bisitak eta familia elizkizunak, ezkontza eta hiletak, e.a.. Etxeko eremua ez zen emakumezkoena soilik izan, gizonezkoentzat ere bilera sozialen jokalekua zen (*simposium*), eta estatus sinboloa adierazten zuen. Eta, bestaldetik emakumezko gehienak hiritik mugitzen ziren, bai zerbitzu publikoak erabiliz, bai merkatuko salerosketetan edota aktibitate erlijiosoetan.

Mututasuna sozialarekin batera amatasuna erabili zen emakumezkoak menperatzeko. Grezian amatasunaren kontrola oso handia izan zen, azken finean bertute femeninoak eragin handia baitzuen, bai familiaren eremu pribatuan, bai bizitza komunitarioan. Hiritartasun politika barruan amatasuna elementu nahitaezkoa zen, baina bestaldetik bizitza femeninoan esku-sartzea suposatzen zuen. Mundu femeninoa arazo sozial eta politikotzat hartu zen eta horregatik emakumezkoen kontrola guztiz beharrezkoa zen (Henry eta James, 2012: 88). Gizonezkoek emakumezkoek egiten zuten eta esaten zuten guztia agintepean izan behar zuten. Eta sistema demokratikoa garatu ahala emakumezkoen kontrola estutu zen. Amatasuna eta ezkontza une guztiz politizatuak izan ziren.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketa honen bidez genero esanahiaren aldakorra dela adierazi nahi genuen, eta bidetik funtsezko ideia batzuk berreskuratu ditugu. Guztien artean errespetagarritasun sozialaren garrantzia azpimarratu nahi genuke. Errespetagarria izateak eragin handia izan zuen gizarte mailan, baina genero roletarako bereziki inportantea izan zen. Gainera, Greziako historian emakumezkoen errespetagarritasunaren kontrola behin eta berriz adierazi zen, batez ere “emakumezkoen hiritarren” kontrola. Halaber, talde femeninoan dikotomia morala ezarri zen eta emakumezkoak bi multzotan banandu ziren: errespetagarriak ziren andereak eta ez zirenak, eta diferentzia hau antolaketa sozialean ezinbesteko osagai bihurtu zen.

Etorkizunean errespetagarritasunaren ñabardurak ikertzea izan daiteke erronka interesgarria. Eta ideia honekin batera beste bi bide emankorrak antzeman ditugu. Alde batetik, emakumeen diskurtsoen azterketa, gaur egungo analisi historiko berriek hitzaren garrantzia agerian jarri dutelako. Eta bestaldetik, familiaren esanahia, emakumezkoen botere forma alternatibotzat hartuta.

6. Erreferentziak

- Bruit Zaitman, Louise (1991): “Las hijas de Pandora. Rituales colectivos y practicas de mujeres”, in George Duby eta Michelle Perrot (arg.), *Historia de las mujeres I. La Antigüedad*, Circulo de Lectores, Barcelona, 373-419.
- Davidson, James (2011): “Bodymaps: sexing space and zoning gender in ancient Athens”, *Gender and History*, 23, (3), november, 597-614.
- Duby, George, eta Perrot, Michelle (arg.) (1991): *Historia de las mujeres I. La Antigüedad*, Circulo de Lectores, Barcelona
- Calero Secall, Inés (2012): “Los legisladores griegos y sus preceptos sobre las mujeres en los funerales”, *Revista de estudios histórico-jurídicos*, 34, Ediciones Universidad de Valparaíso, Valparaíso, 37-51.
- Cantarella, Eva (1991): *La calamidad ambigua: condición e imagen de la mujer en la antigüedad griega y romana*, Clásicas, Madril.
- Fragkaki, Mary (2016): “La femme Spartiate et Cretoise: une co-interpretation”, *Ágora. Estudios Clásicos em Debate*, 18, 59-79.
- García Gual, Carlos (1992): *Introducción a la mitología griega*, Alianza, Madril.
- Henry, Madeleine M. eta James, Sharon L. (2012): “Woman, city state: theories, ideologies, and concepts in the Archaic and Classical Periods”, in Sharon L. James and Sheila Dillon (arg.), *A Companion to Women in the Ancient World*. Oxford: Wiley-Blackwell, 84-95.
- Iriarte, Ana (2002): *De Amazonas a ciudadanos. Pretexto gineocrático y patriarcado en la Grecia Antigua*, Akal, Madril.
- (1990): *Las redes del enigma. Voces femeninas en el pensamiento griego*, Taurus, Madril.
- James, Sharon L. eta Dillon, Sheila (arg.) (2015): *A Companion to Women in the Ancient World*, Wiley-Blackwell, Oxford.
- Lardinois, Andre eta McClure, Laura (arg.) (2001): *Making silence speak: women's voices in Greek literature and society*, Princeton University Press, Princeton, New Jersey.
- Loroux, Nicole (2004): *Las experiencias de Tiresias (lo masculino y lo femenino en el mundo griego)*, Acantilado, Barcelona.
- (1996): “Notas sobre un imposible sujeto de la historia”, *Enrahonar*, 26, Universidad Autónoma de Barcelona, Barcelona, 13-24.

- Madrid, Mercedes (1999): *La misoginia en Grecia*, Cátedra, Madril.
- Marín Torres, Joan M. (2012): “Ciudadanía y género en Grecia. Fundamentos teóricos”, in Rosalia Torrent eta Sonia Reverter (arg.), *Variaciones sobre género*. Acen, Castellon, 55-65.
- Martínez López, Cándida (1995): “Las mujeres y la ciudad en las sociedades mediterráneas clásicas”, in Pilar Ballarín eta Cándida Martínez Lopez (arg.), *Del patio a la plaza. Las mujeres en las sociedades mediterráneas*, Universidad de Granada, Granada.
- McClure, Laura (1999): *Spoken like a woman. Speech and gender in Athenian drama*, Princeton University Press, Princeton, New Jersey.
- Mirón Pérez, María Dolores (2004): “Oikos y oikonomia: el análisis de las unidades domésticas de producción y reproducción en el estudio de la economía antigua”, *Gerión*, 22, (1), Universidad Complutense, Madril, 62-64.
- Molas Font, María Dolors (arg.) (2002): *Vivir en femenino: estudios de mujeres en la antigüedad*, Edicions de la Universitat de Barcelona, Barcelona.
- Molas Font, María Dolors et al. (2006): *La violencia de género en la Antigüedad*, Instituto de la Mujer, Madril.
- Mosse, Claude (1995): *La mujer en la Grecia clásica*, Nerea, Madril.
- Nevett, Lisa C. (2011): “Towards a female topography of the Ancient Greek city”, *Gender and History*, 23, (3), november, 576-596.
- Pomeroy, Sarah B. (1987): *Diosas, esposas, rameras y esclavas. Mujeres en la Antigüedad Clásica*, Akal, Madril.
- (2002): *Spartan women*, Oxford University Press, Oxford.
- Pomeroy, Sarah B. et al. (2001): *La Antigua Grecia. Historia, política, social y cultural*, Critica, Barcelona.
- Quintano Martínez, Paula (2016): *Género, discurso y transgresión en la Antigua Grecia: la figura de Clitemnestra*, Universitat Jaume I, Castellón.
- Quintillá Zanuy, Teresa (2005): “Los sexolectos o la caracterización del discurso femenino en el ámbito grecolatino”, *Faventia*, 27, (1), Universidad Autónoma de Barcelona, Barcelona, 45-62.
- Rodríguez Adrados, Francisco (1993): *La democracia ateniense*, Alianza Editorial, Madril.
- Rose, Sonya O. (2012): *¿Qué es la historia de género?*, Alianza Editorial, Madril.
- Scott, J.W. (1990): “El género: una categoría útil para el análisis histórico”, in J. S. Amelang eta N. Nash (arg.), *Historia y Género: las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*, Alfons el Magnanim argitaletxea, Valentzia.
- Sissa, Giulia (1991): “Filosofías del género: Platón, Aristóteles y la diferencia sexual”, in George Duby eta Michelle Perrot (arg.), *Historia de las mujeres I. La Antigüedad*, Círculo de Lectores, Barcelona, 73-111.
- Trümper, Monika (2015): “Gender and Space, “Public” and “Private”, in Sharon L. James eta Sheila Dillon (arg.), *A Companion to Women in the Ancient World*. Wiley-Blackwell, Oxford, 288-303.
- Vernant, Jean-Pierre (1992): *Los orígenes del pensamiento griego*, Paidós, Barcelona.
- Vernant, Jean-Pierre (arg.) (1991): *El hombre griego*, Alianza, Madril.
- Zaragoza Gras, Joana (2006): “La mujer como sujeto pasivo de la literatura griega”, in María Dolors Molas Font et al. (arg.), *La violencia de género en la Antigüedad*, Instituto de la Mujer, Madril, 15-38.

7. Eskerrak eta oharrak

Aurreko ikasturtean aurkeztu nuen Master Bukaerako Lana du oinarri komunikazio honek, hain zuzen ere, genero eta ikasketa feministak ikerketarako masterrean: Jaume I unibertsitateko *Master universitario de investigación aplicada en estudios feministas, de género y ciudadanía* izenekoa. Han genero ikerketa honekin hasteko aukera izan nuen. Bukatzeko, master zuzendaritzari eta talde osoari eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki lan- zuzendari eta gaur egun tesi-zuzendari Joan M. Maríni.